



BEZaren Erregelamenduan egindako aldaketak, hain zuzen ere abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzeko ekainaren 15eko 424/2021 Errege Dekretuak sartu dituenak.

A. MERKATARITZA ELEKTRONIKOA

1) Ondasunen batasun barruko urrutiko salmentei eta hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatutako ondasunen urrutiko salmentei buruzko definizioa: hornitzaileak ondasunak garraiatzea (BEZaren Erregelamenduko 1. artikulua).

Batasuneko araudira joz, kasu jakin batzuk ezartzen dira, non hornitzaileak zeharka ondasunen garraioan esku hartu baitu, kontuan hartuta ondasunak hornitzaileak berak edo bere kontura garraiatu dituela entrega batasun barruko urrutiko salmenta gisa edo ondasun inportatuen urrutiko salmenta gisa tributatzeko asmoz.

Zehazki, 282/2011/EB Exekuzio Erregelamenduaren 5 bis artikulua honako hau dio:

- a) Hornitzaileak ondasunen bidalketa edo garraioa hirugarren bati **azpikontratatzan dionean**, eta hirugarren horrek fisikoki bezeroari entregatzen dizkionean.
- b) Hirugarren bat arduratzen denean ondasunak bidaltzeaz edo garraiatzeaz, baina hornitzaileak bere gain hartzen duenean ondasunak bezeroari fisikoki ematearen **erantzukizun** osoa edo zati bat.
- c) Hornitzaileak garraio tasak bezeroari **fakturatzan eta kobratzen** dizkionean, eta ondoren hirugarren bati bidaltzen dizkionean eta hirugarren hori ondasunen bidalketa edo garraioa antolatzeaz arduratuko denean.
- d) Hornitzaileak hirugarren batek bezeroari entregatzeko zerbitzuetan edozein bitartekoren bidez laguntzen duenean, bezeroa eta hirugarren bat **harremanetan jartzen dituenan** edo ondasunak kontsumitzaileari entregatzeko beharrezkoa den informazioa beste edozein modutan hirugarren bati ematen dionean.

Ez da ulertuko ondasunak hornitzaileak berak edo bere kontura bidali edo garraiatu dituenik bezeroak berak ondasunak garraiatzen dituenan edo bezeroak ondasunen entrega hirugarren batekin antolatzen duenean eta hornitzaileak zuzenean edo zeharka ondasun horien bidalketa edo garraioa antolatzeko edo antolatzen laguntzeko esku hartzen ez duenean.



2) Interfaze digitalak: ondasun entrega edo zerbitzu prestazioa errazteko baldintzak, eta erregistro betebeharrak (1 bis eta 62 bis Erregelamenduko artikulua).

Europar Batasuneko araudira joz, ezartzen da zer zirkunstantzia bete behar diren enpresaburu edo profesional batek interfaze digital bat erabiliz ondasun entrega edo zerbitzu prestazio bat errazten duela jotzeko.

Zehazki, 282/2011/EB Exekuzio Erregelamenduaren 5 ter eta 54 ter artikuluen arabera, interfaze elektronikoa bat erabiltzea entrega edo prestazioa "**erraztea**" izango da, betiere hori egiten bada bezero batek eta interfaze elektronikoa baten bidez zerbitzuak eskaintzen dituen edo ondasunak salgai jartzen dituen hornitzaile batek interfaze elektronikoa horren bidez ondasun entrega bat edo zerbitzu prestazio bat ekarriko duen kontaktu bat abiarazi ahal izan dezan.

Hala ere, enpresaburu batek **ez du ondasun entregarik edo zerbitzu prestaziorik erraztuko**, baldin eta honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:

- a) Zuzenean edo zeharka, entrega edo prestazioa egiteko baldintzak ezartzen ez dituenean.
- b) Zuzenean edo zeharka, egindako ordainketak bezeroari kobratzeko baimenean esku hartzen ez duenean.
- c) Zuzenean edo zeharka, eskaeran edo ondasun entregan edo zerbitzu prestazioan esku hartzen ez duenean.

Interfaze digitalak ondasun entrega edo zerbitzu prestazioa errazten duenean, eragiketa horien erregistro bat eraman beharko du, behar bezain zehatza, kontsumoko estatu kideko zerga administrazioak zerga behar bezala aitortu ote den egiaztatzeko, eta haren edukia honako hauek barne hartu beharko ditu:

- Hornitzailearen izena, helbide postala eta helbide elektronikoa edo webgunea, eta, eskuragarri baldin badaude, IFZ-BEZ edo hornitzailearen identifikazio fiskaleko zenbaki nazionala, banku kontuaren zenbakia edo kontu birtualaren zenbakia.
- Ondasunen deskribapena, haien balioa, garraioa iristen den lekua, eta entregatzeko unea.
- Zerbitzuen deskribapena, haien balioa, zerbitzua non eta noiz emango den zehazteko informazioa.
- Eskaera zenbakia edo transakzioaren zenbaki bakarra, eskuragarri badaude.

Erregistro horrek bide elektronikoz egon beharko du, aldez aurretik eskatuta, estatu kide interesdunen eskura, eta 10 urtez egongo da eskuragarri.

3) Ondasun entrega eta zerbitzu prestazio jakin batzuk egiteko lekua: ez zergapetzearen aldeko aukera (BEZaren Erregelamenduko 22. artikulua).



Estatu kide bakarrean kokatuta dauden eta noizean behin beste estatu kide batzuetan kokatutako azken kontsumitzaileei ondasunak entregatzen edo zerbitzuak ematen dizkieten mikroenpresentzako administrazio eta zerga kargak murrizteko (orain arte horrek berekin zekarren eragiketa horiengatik kontsumoko estatu kidean zergak ordaintzea) **10.000 eurorainoko batasuneko atalase komun bat ezarri da**. Atalase horri esker, zenbateko hori gainditzen ez den bitartean, hornitzailearen kokapen estatu kideko BEZari lotuta egongo dira ondasunen batasun barruko urrutiko salmentak eta telekomunikazio, irrati eta telebista zerbitzuen eta zerbitzu elektronikoen prestazioak.

Nolanahi ere, enpresaburu edo profesional horiek **zergak kontsumoko estatu kidean ordaintzeko aukera izango dute, nahiz eta atalase edo muga hori ez gainditu**.

Horretarako, baldintza gisa ezartzen da Zerga Administrazioaren aurrean justifikatzea egindako entregak eta zerbitzuak beste estatu kide batean aitortu direla, salbu eta zergak leihatila bakarraren bidez ordaintzen badituzte. Justifikazio hori, bereziki, sortutako edo zordundutako BEZaren aitortpen-likidazioaren edo diru sarreraren frogagiriak aurkeztuta egin ahal izango da.

Enpresaburuak edo profesionalak bi urte natural igaro ondoren errepikatu beharko ditu aukerak, edo, bestela, automatikoki ezeztatuko dira.

4) Sortzapena: bezeroaren ordainketa onartzea (Erregelamenduko 23 bis artikulua).

Batasuneko araudira joz, ezarri egiten da noiz hartzen den onartutzat ondasun inportatuen urrutiko salmenten sortzapena zehazteko bezeroaren ordainketa eta, baita ere, noiz hartzen diren onartutzat hornitzaileak interfaze digitalari egindako entreegi eta horrek azken kontsumitzaileari egindako entregak, interfazea subjektu pasibotzat hartzen denean.

Zehazki, 282/2011/EB Exekuzio Erregelamenduko 41 bis eta 61 ter artikuluen arabera, **ordainketa onartzen den unea** izango da ordainketaren berrespena, ordainketa baimentzeko mezua edo bezeroaren ordainketa konpromisoa –lehenik gertatzen dena– hornitzaileak berak (edo haren kontura) jasotzen duen unea, diruaren benetako ordainketa egiten den unea edozein dela ere.

5) Leihatila bakarreko erregimen bereziak: aukeratzea, uko egitea, baztertzea, betebeharrak formalak eta informazio betebeharrak (BEZaren Erregelamenduko VIII. tituluaren IX. kapitulua).

a) Aukeratzea (BEZaren Erregelamenduko 61 terdecies artikulua):

Leihatila bakarreko erregimen bereziren bat aukeratzeko, identifikazio estatu kidean hasierako adierazpena aurkeztu beharko da, eta aukera horrek ondorioak izango ditu:

- Batasuneko erregimena: aurkeztu eta hurrengo hiruhileko naturalaren lehen egunetik aurrera.



- Inportazio erregimena: enpresaburuari edo bitartekariari erregimen horretarako identifikazio zenbaki indibiduala ematen zaion egunetik aurrera.

Hala ere, batasuneko erregimenean, aukera ematen da eragiketak erregimen horiek aplikatuz hasteko, aurretik hasierako aitortpena aurkeztu gabe, betiere hura gehienez hurrengo hilaren hamargarren egunean aurkezten bada.

b) Uko egitea (BEZaren Erregelamenduko 61 terdecies artikulua):

Leihatila bakarreko erregimen berezietako edozeini borondatez uko egiteko, amaiera aitortpena aurkeztu beharko da identifikazio estatu kidean, eta uko egiteak ondorioak izango ditu:

- Batasuneko erregimena: hura erabiltzeari utzi aurreko hiruhilekoa amaitu baino 15 egun lehenago, gutxienez. Adibidez: laugarren hiruhilekoan aplikatzeari uzteko, hari uko egiteko epea irailaren 15ean amaituko da. Ondorioak urriaren 1ean izango ditu.
- Inportazio erregimena: hura erabiltzeari utzi aurreko hilabetea amaitu baino 15 egun lehenago gutxienez. Adibidez: abuztuan aplikatzeari uzteko, hari uko egiteko epea uztailaren 15ean amaituko da. Ondorioak abuztuaren 1ean izango ditu.

Kasu partikularra: enpresak berregituratzea.

Batasunean finkatutako enpresaburuak bere jarduera ekonomikoaren egoitza estatu kide batetik beste batera aldatzen duenean edo identifikazio estatu kidean finkatuta egoteari uzten dionean, baina Batasunean finkatuta jarraitzen duenean, batetik, amaiera aitortpena finkatuta egoteari utzi dion estatu kidean aurkeztu ahal izango du, eta, bestetik, hasiera aitortpen berri bat beste estatu kide batean aurkeztu ahal izango du egoitza edo establezimendu iraunkorra aldatzen den egunean.

Identifikazio estatu kidearen aldaketak egoitza edo establezimendu iraunkorra aldatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, betiere enpresaburuak gehienez hurrengo hilabetearen hamargarren egunean aurkezten baditu aitortpen horiek.

c) Baztertzea (BEZaren Erregelamenduko 61 quaterdecies artikulua):

Enpresaburu bat edozein erregimen berezitatik kanpo baztertze erabakia identifikazio estatu kideak bakarrik hartuko du. Estatu kide horren erabakia bide elektronikoz jakinarazi beharko zaio enpresaburu horri, eta ondorioak izango ditu:

- Batasuneko erregimena: komunikazio egin eta hurrengo hiruhilekoaren lehen egunetik aurrera.
- Inportazio erregimena: komunikazioa egin eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera, salbu eta baztertzea erregimen honetako arauak behin eta berriz ez betetzeagatik gertatzen bada; kasu horretan, komunikazioa egin eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.



Hauek dira **baztertzeko arrazoiak**:

- OSS-IOSS erregimeneko eragiketak egiteari uzteagatik amaiera aitortpena aurkeztea (epea: hurrengo hilaren 10era arte).
- Erregimen berezietako eragiketak ez egitea kontsumo estatu kide batean ere, bi urteko epean.
- Erregimen berezi horietara biltzeko beharrezko baldintzak ez betetzea.
- Erregimenei dagozkien obligazioak behin eta berriz ez betetzea (besteak beste: aitortpena ez aurkeztea; edo hiru aitorten alditan ez ordaintzea; erregistroak bide elektronikotik eskura ez jartzea, aldeaz aurretik errekerimendua eginda; 150 eurotik gorako berezko balioa duten ondasunak inportatzea).
- Bitartekariak Europar Batasunetik kanpoko hornitzailea ordezkatzeari uztea inportazio erregimenean (IOSS).

Bestetik, bitartekaria inportazio erregimenetik (IOSS) baztertzeko erabakiak berekin dakar haien kontura jarduten zuen enpresaburuen erregimenetik baztertzeari.

Batasuneko erregimenetik baztertuta geratu diren enpresaburuek zuzenean ordaindu beharko dizkiete kontsumo estatu kideko agintariei BEZarekin lotutako betebeharrak guztiak, bazterketa benetan gauzatu ondoren sortzen diren ondasun entregatutako edo zerbitzu prestazioengatik.

d) Betebehar formalak eta informazio betebeharrak. Erregistro betebeharrak (BEZaren Erregelamenduko 61 sexiesdecies artikulua):

Batasuneko erregimenera (OSS) bildutako enpresaburuek eragiketa horien erregistro bat egin beharko dute, behar bezain zehatza, kontsumo estatu kideko zerga administrazioak zerga behar bezala aitortu ote den egiaztatzeko. Erregistroak eduki hauek hartuko ditu barnean:

- Kontsumo estatu kidea.
- Egindako zerbitzu prestazio mota edo entregatutako ondasunen deskribapena eta kopurua.
- Eragiketa noiz egin den.
- Zerga oinarria, zerga tasa eta zenbateko zordundua (moneta adierazita).
- Zerga oinarriaren ondorengo edozein gehikuntza edo murriztapena.
- Jasotako ordainketen data eta zenbatekoa.
- Aurrerakinak.
- Fakturan jasotako informazioa, halakorik egiten bada.
- Zerbitzu prestazioetan bezeroa finkatuta dagoen lekua eta garraioa hasten eta amaitzen den lekua zehazteko erabiltzen den informazioa.
- Ondasunen balizko itzulketen edozein frogara, aplikatutako zergaren oinarria eta mota barne.



Honako hau da erregistroaren edukia, inportazio erregimenera **(IOSS)** bildutako enpresaburuen edo bitartekarien kasuan:

- Kontsumo estatu kidea.
- Entregatutako ondasunen deskribapena eta kopurua.
- Ondasunak noiz entregatu diren.
- Zerga oinarria, zergaren tasa eta zenbateko zordundua (moneta adierazita).
- Zerga oinarriaren ondorengo edozein gehikuntza edo murriztapena.
- Jasotako ordainketen data eta zenbatekoa.
- Fakturan jasotako informazioa, halakorik egiten bada.
- Garraioa hasten eta amaitzen den lekua zehazteko erabilitako informazioa.
- Ondasunen balizko itzulketen edozein froga, aplikatutako zergaren oinarria eta mota barne.
- Eskaera zenbakia edo transakzio zenbaki bakarra.
- Bidalketa zenbaki bakarra, enpresaburuak entregan zuzenean esku hartzen duenean.

Erregistro horrek bide elektronikoz eskuragarri egon beharko du berehala, bai identifikazio estatu kidearentzat, bai kontsumoko estatuentzat.

Informatzeko betebeharrak (BEZaren Erregelamenduko 61 quinquesdecies artikulua):

Enpresaburuak aldaketa aitortpen bat aurkeztu beharko dio identifikazio estatu kideari, emandako informazioan aldaketaren bat egonez gero; gehienez ere hurrengo hilaren hamargarren egunean aurkeztu beharko du.

BEZaren erregistro liburuak (BEZaren Erregelamenduko 62.2 artikulua)

Enpresaburuak leihatila bakarreko erregimen bereziei dagozkien eragiketak beren BEZaren erregistro liburuetan erregistratu beharko dituzte, haiek eramatetik salbuetsitako erregimenen artean ez daudenean.

Erregistro liburuak fakturazio erregistroren hornidura elektronikoen bidez (BIH) eramaten dituzten enpresaburuei ere aplikatuko zaie hori.

6) Bitartekari gisa jarduteko baldintzak eta betekizunak (BEZaren Erregelamenduko 61 septiesdecies artikulua):

Honako baldintza haiek ezartzen dira operadore batek Espainian inportazio erregimenean (IOSS) bitartekari gisa jardun ahal izateko:

- Identifikazio fiskaleko zenbakia izatea.
- Zergaren aplikazio lurraldean finkatuta egotea.
- Aurreko lau urteetan, bere jarduera ekonomikoari dagokionez, Ogasun Publikoaren aurkako delitu bat edo zerga arloko arau hauste larri bat



egiteagatik kondenatua edo zigortua ez izatea epai do administrazio ebazpen irmo baten bidez.

- Finantza kaudimena (konkurtso prozedura batean sartuta ez egotea, aduana zorrak eta zerga zorrak aurreko lau urteetan ordaintzea, obligazio komertzialak betetzeko finantza gaitasun nahikoa izatea).

Aduana araudiari jarraituz operadore ekonomiko baimendua denean joko da baldintza horiek betetzen direla.

7) Aduanan BEZaren aitortpena, likidazioa eta ordainketa egiteko modalitate berezia, IOSS hautatzen ez denean (BEZaren Erregelamenduko 74.1 artikulua):

Baldintza hauek ezartzen dira, ondasunak inportatzailearen kontura Aduanan aurkezten dituen pertsonak aitortpena eta ordainketa egiteko modalitate berezia aukeratu dezan:

- Aduanan inportatzailearen kontura merkantzia aurkezlea dela egiaztatu izana.
- Inportatzaileen kontura inportatutako merkantzia guztiei buruzko hileko aitortpena aurkeztea.
- Eragiketen erregistro bat eramatea, hilabete natural bakoitzeko bidalketa bakoitzari buruzko informazioa izango duena.

Kasu horietan, zerga tasa % 21 da, produktua edozein dela ere.

Erregistroak bide elektronikoz egon beharko du, aurretik eskatuta, Zerga Administrazioaren eskura, eta 4 urtez mantenduko da, eragiketa egin den urtearen amaieratik aurrera.

B. Finkatu gabeko enpresaburuei BEZa itzultzea (BEZaren Erregelamenduko 31 eta 31 bis artikulua):

Uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldatu egiten da BEZaren Erregelamendua. Izan ere, helburua da doitzea, batetik, betiere zergaren aplikazio lurraldean finkatuta ez dauden baina Batasunean, Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan finkatuta dauden enpresaburuek edo profesionalek zerga aplikatzen den lurraldean jasandako zerga itzultzeko prozedurak eta, bestetik, zergaren aplikazio lurraldean eta Batasunean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan finkatuta ez dauden enpresaburu edo profesional jakin batzuei itzultzeko prozedura, bai leihatila bakarreko erregimen berezi berrien erregulazioari dagokionez eta bai itzulketa eskaeran jasotako zergaldien eta gutxieneko zenbatekoen erregulazioari buruzko batasuneko araudi aplikagarria zehaztasun handiagoz doitzeari dagokionez.

Horrela, onartu egiten dira **urte naturala baino luzeagoa eta hiru hilabete baino gutxiagokoa** ez den epean gutxienez 400 euroko zenbatekoan jasandako



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

kuotak dituzten itzulketa eskaerak; aurreko erregulazioan, ordea, urteko edo hiru hilabeteko aldia bakarrik onartzen zen.

Hala ere, eskaerak barnean hartu ahal izango ditu hiru hilabete baino epe laburragoan jasandako kuotak, baldin eta zergaldi horrek urte naturala osatzen badu. Kasu horretan, gutxienerako zenbatekoa 50 euro dira.